

# TXOSTENA 2023 MEMORIA

Kinu bat mila kimu



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

[www.caritasbi.org](http://www.caritasbi.org)



**Caritas**  
Bizkaia



birzikatutako  
papelean  
inprimatuta



**Hau da 15.000 aurpegik, hainbat errealitatetik etorritako pertsonen, baina Komunitate abegikor batean taupadaka lanean aritu diren bihotzekin, pertsona askoren aukerak eta duintasuna hobetzeko ahaleginean lortu duten emaitza, 2023ko Memoria gisa.**

**Istorio errealetan oinarritutako proiektuak laburbiltzen ditu, elkartasunari, hobetzeari, akonpainamenduari eta ardurari buruzko istorioak.**

**Protagonistak Caritas Bizkaiako boluntarioak, bide-laguntza jaso dutenak, profesionalak eta kolaboratzaileak dira. Zifra bakoitzak bihotz asko babesten ditu. Taupadaka jarraitzeko eta ilusioa kutsatzen jarraitzeko irrikaz dihardute bihotz horiek, justiziaren eta gizarte-eraldaketaren alde.**

**Orri hauetan ezagut ezazu Caritas Bizkaiako Harrera Komunitatearen lana.**

ELENA UNZUETA. Caritas Bizkaiako zuzendaria

## EGITEKOA

Caritas Bizkaia Elizaren Kristau Elkartearen parte eta adierazpide da. Karitate eta gizartearen aldeko konpromisuaren garapena bultzatu eta animatzen du. Boluntariotzan oinarritua, parte-hartzea, konpromiso soziala eta sare-lana sustatzen ditu. Pertsonen laguntzen deitso beren gizarteratze prozesuetan, itxaropena elikatuz, aurkitutako beharren aurrean erantzunez eta ekimen berritzaileak sortuz. Eskubideen alde lan egiten du pertsonen bizitza duina gara dezaten. Bidegabekeria eragiten duten arrazoiak ikusarazten du, sentsibilizazioa, ikusaraztea eta salaketaren bitartez eta gizarte eraldatzeko alternatibak proposatzen ditu.

## IKUSPEGIA

Caritas Bizkaia datozen urteetan horrela ikusten da:

- *Parte hartuz*, aktiboki parte hartzen eta *justiziaren eta gizarte-eraldaketaren aldeko konpromisoa* sustatzen.
- *Ikusgai*, zer den, zer egiten duen eta zer proposatzen duenagatik ezaguna.
- *Zaintzailea eta zainketa bultzatzen duena*, gizarte-ereduaren funtsezko elementu gisa
- Kalitatezko *jakintzarekin*, ekintza-ekimenetan eguneratua eta aniztasunari irekia *egoera ahulean dauden pertsonen alde*.

Bideo instituzionala



## BALIOAK

- Maitasuna, Parte-hartzea, Doakotasuna, Hurbiltasuna, Itxaropena, Koherentzia eta Hobetzeko gogoia

# Dena dago konektatuta

*"Ez daude bi krisi bereizi, bata ingurunekoa eta bestea soziala, baizik eta gizarte- eta ingurumen-krisi bakar eta konplexu bat." (LS, 139).*

Laudato Si Helburuak (LSH) gonbidapen bat dira: gurekin, gainerako pertsonekin, gure etxe komunarekin eta Jainkoarekin dugun harremana berriro definitzeko gonbidapena. Bizitzako esparru guztiak hartzen dituen ikuspegi orokorra da. Planetaren mugak eta gizateria osoak bizi duen krisi ekologiko, ekonomiko eta sozialaren giza sustraiak hartzen ditu abiapuntutzat. Laudato Si Helburuak Elizaren deialdia da, gizarte eta ingurumen krisiari aurre egiteko Ekologia Integral baten aldeko eraldaketa espiritual eta kultural sakon baterako deialdia.

Era berean, Garapen Iraunkorreko Helburuak estrategia global eta lokal baten zehaztapena dira, administrazio publikoek, eragile sozialek, politiko, kulturelek eta, oro har, herritarrek bultzatua.

2023-2026 Plan Estrategikoarekin, Caritas Bizkaiak Ekologia Integralaren eta Garapen Jasangarriaren aldeko konpromezua hartzen du.

## LAUDATO SI (OLS) HELBURUEN KONPROMISOAK



Estrategia-plana



### GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEN KONPROMISOAK (GJH)

<b>1</b> POBREZIA DESAGERTZEA 	<b>10</b> DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA 	<b>17</b> ITUNAK HELBURUAK LORTZEKO 	<b>4</b> KALITATE ONEKO HEZKUNTZA 	<b>5</b> GENERO-BERDINTASUNA 	<b>8</b> LAN DUJINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA 	<b>12</b> EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA 	<b>2</b> GOSERIK EZIZATEA 	<b>3</b> OSASUNA ETA ONGIZATEA 	<b>11</b> HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK 
-----------------------------------	--	---	---------------------------------------	----------------------------------	---	--	-------------------------------	------------------------------------	---

Caritas Bizkaiak BBK KUNA 2030 KIDEAK sektore anitzeko aliantzan parte hartzen du, eta AURRERAKIDE papera betetzen du 1. GJHren (Pobreziaren amaiera) trakzioan.


# ZUREKIN BAGARA

Komunitate eta lurralde bakoitzetik, bertan dauden pertsona guztiak inplikatzeko dituzten prozesuak sortzen dira, ez bakarrik ekintzen hartzaile gisa, baizik eta haien garapena, dinamismoa eta aurrerapen eraldatzailea hobetzen duten ideien eta proiektuen sustatzaile gisa.

Ikuspegi komunitarioa Caritasen proiektuetan parte hartzen duten pertsonetako lanean hartzerakoan pertsonen bizi-baldintzak hobetzea dakarkigu, komunitatean bertan lagunduz.

Parte-hartzea beharrezkoa da hazkunde personal eta soziala lortzeko eta inklusio-maila sendoak egonkortzeko. Ezin da garapen eta hobekuntza prozesurik eraiki parte hartzeko eskubidea heltze-ariketa gisa aintzat hartu gabe. Beharrezkoa da pertsonen harreman-dimentsioa aberastea, gizartean parte hartzea errazteko eta "partaide", "kide", "barne sentitu" pertzepzioan aurrera egiteko. Zerk eragiten digun, zerk mugitzen gaituen, zerk interesatzen zaigun. Non eragiteko gai garen, zertan lagundu dezakegun, interpelatzen gaituzten arazoak, zerk egiten gaituen indartsu, nola izan laguntza besteentzat. Galdera horiek egin behar dizkiogu geure buruari eta egin behar dute baita gurekin lan egiten dutenak, beren potentziala jartzeko, ikasteko eta laguntzeko eremuak eta espazioak aurki ditzaten. Horrela lortzen dugu eraldaketa.

Caritas Bizkaiaren ekintza lurralde ezberdinetako kristau komunitateen bizitzaren parte da, eta horrek ikuspegi komunitario honen garapena errazten du. Boluntarioak beren komunitateko ekintzaren eragile dira, eta gizarte gizatiarragoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa eraikitzeko misioarekin duten konpromisoa garatzen dute.





## Boluntariotza

Caritasen oinarria da, bere nortasunari ainguratutako elementu ordezkazekin bat. Boluntariotzak ahotsa altxatzen du pertsona ugariaren sufrimenduaren errealitateari buruz, lasaitasunaz, hurbiltasunaz, entzuteaz, duintasunaz, eskubideez, ekintza kolektiboaz... hitz eginez.

**1.890** boluntario (%77 ♀)

- **18** txanda jarri dira abian boluntario jarduteko "Boluntario izateko eta egiteko" prozesuan, eta, guztira, **244** pertsonak parte hartu dute bertan (%45 ♀).
- **238** pertsona (%74 ♀) hasi dira boluntario lanetan.
- **323** boluntariok (%78 ♀) parte hartu dute Caritasen eskaintako eta zuzenean nahiz beste erakunde batzuen bidez kudeatutako **105** prestakuntza-eremuetako batean.

Sentsibilizazio-ekintzak egin dira **45** hezkuntza-zentrotan baino gehiagotan, eta **1.900** ikaslek parte hartu dute bertan (%59 ♀).

### Boluntarioek egindako ekintza solidarioa alderdi hauetan oinarritzen da:

- Errukia, beste norbaiten sufrimendua gurea balitz bezala sentitzeko gaitasuna.
- Herritartasun aktiboaren eraikuntza, gizarte-sarea dinamizatuz.
- Gizarte-eraldaketaren bilaketa, beste errealitate baten ametsak aurreratuz eta amets horiek posible egiteko lan eginez.



Boluntarioek egiten duten ekintza solidarioa honetan oinarritzen da::

- 25 erakunderekin batera, Bizkaiko **Boluntariotzako Erakundearen Foroan parte hartzea**, hausnartzeko eta ekintza bateratuak garatzeko.
- Herritarren ekintzarako, boluntariotzarako eta lan bateraturako eremua den **BizkaiaGararekin koordinatzea**.
- Bizkaiko unibertsitate-erkidegoaren partaidetza soziala sustatzeko **UNIKIDE programako proposamenetan parte hartzea**.
- **Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko lan-talde iraunkorrean parte hartzea**, kontseiluaren eta, bertatik, Boluntariotzaren 2021-2024ko Euskal Estrategiaren dinamizazioa eta jarraipena bermatzeko.
- **Europako Elkartasun Taldeko (EET)** kide moduan ziurtatutako erakundea.



# Konpromiso partekatua, gehien behar duenarengandik hurbil egoteko aukera ematen diguna

**2.628** haur (%48 ♀) y **941** gazte (%43 ♀).

Caritas Bizkaian arreta jaso duten pertsonen %27 23 urtetik beherakoak izan dira (%45 ♀).

**8.155** 23 eta 64 urte bitartekoak dira (%56 ♀).

65 urtetik gorako **732** pertsona (%79 ♀).

**5.915** (45%) heldu ziren lehen aldiz Caritasera 2023an. (%47 ♀).



**4.571** pertsona pertsona bakarreko etxeen unitateetakoak dira (%42 ♀).

**2.591** pertsona guraso bakarreko etxeetako kideak dira (%72 ♀).

**5.754** pertsona seme-alabak dituzten familietako kideak dira (%63 ♀).

**51%** bertakoak eta egoera erregularran dauden etrokinak (%61 ♀).

**13.090**

%52



**pertsonak jaso dute bide-laguntza Bizkaian 244 proiektutan**

LIM



Caritas Bizkaiak hauskortasun eta kalteberatasun handieneko egoeran dauden pertsonen aldeko apustua egin du. Horiei arreta emateko, "**Laguntza integraleko metodologia**" (LIM) erabiltzen da. Metodologia hori gizakiaren duintasuna aitortzetik abiatzen da, eta printzipio hauetan oinarritzen da:

- **Gizakiaren eta pertsonaren duintasuna, dimentsio anitzeko izaki gisa**
- **Gizakia eskubideen subjektu gisa aitortzea**
- **Bizi-kalitatea eta autonomia pertsonala** hobetzea, laguntza emateko helburu gisa.
- **Parte-hartzea** giza eskubideen funtsezko printzipio gisa. Laguntzea, erabakiak hartzea ahalbidetuz eta errespetatuz.
- Lagun-egite pertsonalizatua, pertsona igarotzen ari den egoera pertsonal-familiarraren **ulermen integralean** oinarritua.
- **Bizi-zikloaren ikuspegia**: pertsona bakoitzaren erritmoa kontuan hartuta laguntzea, bere bizi-unea kontuan hartuta, eta prozesua bere biografia pertsonalaren esparruan kokatzea.
- **Beste batzuekin laguntzea**. Gure laguntza prozesu zabalago baten parte da, eta prozesu horretan pertsonaren harreman-sareko beste eragile, profesional, boluntario eta pertsona batzuek ere parte hartzen dute. Pertsona egiten ari den prozesuaren koordinazioa eta ikuspegi integrala zaindu behar dira.
- **Kultura-, funtzio- eta genero-aniztasunarekiko arreta eta errespetua**. Lagundu, aniztasun hori kontuan hartuta, aniztasun horretara egokituta eta aniztasun horren ondorioz sor daitezkeen desabantaila- edo diskriminazio-egoerak hautemanda. Hura gainditzea babestu eta aldarrikatuz.

### Harrera integrala



**7.032** pertsonak jaso dute bide-laguntza (%53♀).



### Enplegua eta ekonomia solidarioa



**1.798** pertsonak jaso dute bide-laguntza (%66♀).

### Etterik gabeko pertsonak



**1.797** pertsonak jaso dute bide-laguntza (%9♀).

### Sustapen sozial eta pertsonala



**1.684** pertsonak jaso dute bide-laguntza (%76♀).

### Familia-harremanak eta haurtzaroa



**1.095** pertsonak jaso dute bide-laguntza (%63♀).

### Edadetuak eta zahartzea



**443** pertsonak jaso dute bide-laguntza (%77♀).

### Nazioarteko lankidetzak eta migrazioak\*



**185** pertsonak jaso dute bide-laguntza (%51♀).

### Gazteria eta emantzipazioa



**160** pertsonak jaso dute bide-laguntza (%9♀).

### Zerbitzu juridikoa



**924** pertsonak jaso dute bide-laguntza (%50♀).

### Psikologia zerbitzua



**251** pertsonak jaso dute bide-laguntza (%55♀).

(\*) 3.059 onuradun zuzen anaiarteko 10 lankidetzak-proiektutan.

# 2023ra begirada bat

Krisiak atzean utzi ditugula dirudi, baina prekarietatea, bizi baldintza kaskarrak eta bakardadearen errealtatea tinko mantentzen dira gure inguruan. 2023 urtean Bizkaiko Caritasak 2022an baino 1.000 pertsona gehiago artatu zituen. Bi abiadurako gizarte baterantz goaz, non talde behartsuenak atzean gelditzen ari dira desberdintasunaren ondorioz.

Gizarte-arrakala horretan, jatorria da desberdintasun-ardatz esanguratsuenetako bat. Irregularitasun administratiboa oztopo handia da lan munduan eta gizartean parte hartzeko, gurea bezalako gizarte zahartu batentzat aktibo garrantzitsua izan litekeen etorkinentzat.

**Prezioen gorakada, etxebizitza eta erroldatzea:** bizimodu duina izateko baldintza materialak izatea formula erraz baten emaitza da: diru-sarrerak ken gastuak. Familia pobreen kasuan, diru-sarreak ez dute ia hobera egin eta gastuek gora egin dute. Familia pobreenek oinarrizko bi partidatara bideratzen dute beraien diru sarrera gehienak: etxebizitzara (familiaren aurrekontuaren %43) eta elikadurara (familiaren aurrekontuaren %20). Bi partidak bereziki kritikoak dira 2023an ikusi dugun prezioen gorakadagatik. Oinarrizko ondasunek, etxebizitzak eta hornidurek prezio igoera jasanezina izan dute familia askorentzat. Etxebizitza eta erroldatzea izan dira arazo nagusiak. Gaur egun alokairuko etxebizitza bat lortzea 2015ean alokairuko etxebizitza bera lortzea baino %44 garestiagoa da.

**Bakardadearen iraunkortasuna:** caritatera hurbiltzen diren pertsona askoren laguntza-sarearen eta harremanen hauskortasuna egiaztatzen dugu berriro. Bakardadeak, loturen ahuleziak eta gizartearen gaitzespenak eraginda, adin guztietako pertsonentzat Caritaseko zentroak topaleku eta komunitate-ingurunera irekitzeko lekuak dira.

**Gizarte-politiken arloan** berrikuntza-urtea izan da, Diru Sarreak Bermatzeko Errenta sistema berria eta etxebizitzarako prestazio ekonomiko berria direla eta. Caritasak lagundutako pertsonak oraindik ere zailtasunak dituzte bi sistemetan sartzeko, eta aldaketen aurrean apur bat desorientatuta daude. Aurrerapen esanguratsu bat nabarmentzen dugu: 0-2 haur-eskolen doakotasunaren ezarpena. Berri ona da familientzat, batez ere guraso bakarrekentzat, horrela orain arte faltan botatzen zen zainketetarako laguntza baitute beraien formakuntza hobetzeko edo/eta lan egin ahal izateko.

**Parte-hartzea, garapen komunitarioa eta zaintzak bultzatu beharreko gai hasiberriak dira, baina bizi-baldintza material egonkorren zutabetan eraikitzen dira. Baina oraindik Caritasera hurbiltzen diran familia askok ez dute ez bata ez besterik.**

Bizkaiko pobrezia eta bazterketari buruzko ezagutza eta hausnarketa sortzen ditu **Behatokiak**, Caritasen emandako arretaren sistematizazioaren eta informazioaren azterketaren bidez.



Foessa txostena





# HARRERA INTEGRALA

Bizimodu duina izateko gutxieneko diru-sarrerak jasotzeko eskubidea.

Babes sozialeko sistema sendo eta indartsu batek gizarte sendoagoa egiten gaitu. Funtsezkoa da oinarrizko premiak (elikadura, arropa, etxebizitza...) asetzeko zailtasunak dituzten pertsonen eta familien laguntzea, baldin eta lehen mailako laguntza-sareak porrot eginda badituzte eta babes sozial publikorik ez badute.

**7.032** pertsonak jaso dute bide-laguntza (%53 ♀).



**6.404** pertsona, laguntza ekonomikoekin lagunduta (%53 ♀).

**368** pertsona izan dira supermerkatu txartelaren onuradun (%58 ♀).

**1.884** pertsona izan dira KOOPERA dendetan erosteko arropa-txartelen onuradun (%54 ♀).

**73** harrera-gune Bizkaian.

Harrera Integraleko arloak lehen arreta eskaintzen die Caritas Bizkaiara hurbiltzen diren pertsonen, beren bizi-egoerari egindako begirada global batetik.



## Esku-hartze ildoak:

- **Harrera integrala.** Caritaserako sarbidea Bizkaiko udalerrri batean kokatuta dauden eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonentzat. Zailtasunak dituzten pertsonen eta familien harrera, babesa eta laguntza eta baliabideei eta eskubideetarako sarbideari buruzko informazioa eta orientazioa eskaintzen dizkien gunea.
- **Oinarrizko premiei arreta ematea.** Pertsonen bizi-baldintzak eta pertsonak gizarteratzeko prozesuak hobetzeko helburuarekin, laguntza eskaintzen da oinarrizko premietan (elikadura, etxebizitzako laguntza –hornidurak, sostengua eta alokairua–, garraioa edo osasuna).
- **Entzuteko guneak.** Entzute osasungarriak laguntza eta duintasuna ematen ditu, suspertu eta indarberitu egiten du, eta pertsonen laguntza integrala emateko beste erantzun bat da.

# ENPLEGUA ETA EKONOMIA SOLIDARIOA

Bizimodu duina izateko, enplegu duina.

Pertsonak jarduera ekonomikoaren erdigunean jartzen dituzten eta lan duina lortzea errazten duten proiektuak garatzearen aldeko apustua egiten du. Giza eskubideen zerbitzura dagoen eta planeta zaintzeari lehentasuna ematen dion ekonomia solidarioa defendatzea.

**1.798** pertsona artatu dira (%66 ♀).



**414** pertsonak lortu dute lan-merkatuan sartzea (%68 ♀).

**1.177** pertsonak jaso dute orientazio sozioralora (%69 ♀).

**1.040** pertsonak jaso dute arreta lan arloko bitartekaritzan (%75 ♀).

**90** pertsona enplegurako prestakuntzan (%66 ♀).

**117** pertsonak hartzen dute parte lan aurreko tailerretan (26% ♀).

**68** pertsonak jaso dute arreta autoenplegu arloko proiektuetan (66% ♀).

**111** gaztek, gazte enpleguaren proiektuetan jaso dute bide-laguntza (34% ♀).

Enplegua eta Ekonomia Solidarioko arloak laguntza eta aukerak eskaintzen dizkie gizarte-zaurgarritasuneko eta -bazterketako egoeran daudenei gizarteratzeko eta enplegu duina lortzeko.



## Esku-hartze ildoak:

- **Enplegu inklusiboa.** Zaurgarritasun-egoeran daudenak laneratzen laguntzen dugu, haien gizarteratzea errazteko laguntza-eredu integral batetik eta baliabideen dinamizazioaren arloko gako komunitario batetik.
- **Ekonomia solidarioa.** Enpresa sozialak, gizarteratze-enpresak, kooperatibak eta merkatu-ekonomiaren barruan produktuak eta zerbitzuak garatzen dituzten ekonomia sozialeko beste erakunde batzuk sustatzen eta bultzatzen ditugu, ekonomia solidarioaren printzipioei jarraituz.



**Laneratzeko enpresak** mantentzearen eta sortzearen aldeko apustua, irabazi-asmorik gabeko ekimen ekonomikoak, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeei laguntzea eta gizarteratzea eta laneratzea helburu dutenak.

## KOOPERA SERVICIOS AMBIENTALES S. Coop. E.I.



Ehungintza, etxetresna elektrikoak, liburuak, jostailuak, papera... Ingurumenaren hobekuntza sustatzen du, hondakinak biltzeko zerbitzu baten bidez eta hondakinak berrerabiltzearen aldeko apustu baten bidez.

**255** pertsona **lanean** (%44 ♀). **225** pertsona **laneratze-postuetan** (%52 ♀).

## KOOPERA ZAINZALAN S. COOP. E.I.



Edadetuen Arretarako Zerbitzua ematen dugu, autonomoentzat ditugun Elkarbizitza Unitateen Sarearen bidez edo Etxe Etxeko Arretarako dugun Zerbitzuaren bidez. Arreta horren osagarri, Garbiketa Zerbitzua dugu etxebizitza pribatuetarako nahiz enpresetako lokaletarako...

**59** pertsona **lanean** (%66 ♀). **23** pertsona **laneratze-postuetan** (%74 ♀).

## LAPIKO CATERING S.L. E.I.



Ostalaritzako sektorearen barruan, lau jarduera-lerro garatzen ditugu: Cateringa eta Ekitaldiak, gizataldeak, kontserba ekologikoak eta plater prestatuak, "zugatik by lapiko" marka.

**17** pertsona **lanean** (%29 ♀). **10** pertsona **laneratze-postuetan** (%20 ♀).

## GIZARTELUR S.L. E.I. (BIOZAKI)



Bi jarduera desberdin garatzen ditu: produktu freskoen eta kontserbako produktuen ekoizpen eta merkaturatze agroekologikoa (Biozaki marka komertziala) eta paketatze eta etiketatze, ehungintza eta industria enpresentzako zerbitzu osagarriak, eta ehungintza.

**20** pertsona **lanean** (%30 ♀). **11** pertsona **laneratze-postuetan** (%36 ♀).

### ENTZUTEN DUEN ekonomia.

Eta enpresen, langileen eta kontsumitzaileen beharrei erantzuten diena.

### ZAINTZEN DUEN ekonomia.

Pertsonen eta haien lan-baldintzez arduratzen da, eta, aldi berean, ingurumena zaintzen du.

### BATU egiten duen ekonomia.

Guztion ongiaren eta lankidetzaren ekonomia da, pertsonen alde onurak lortzen duena.

### ERALDAKETA SUSTAZTEN DUEN ekonomia.

Eraldatzailea den ekonomia, bai arlo pertsonalean, bai arlo kolektiboan.

# ETXERIK GABEKO PERTSONAK

Etxebizitza, mediku-laguntza eta beharrezko gizarte-zerbitzuak bermatuko dituen bizi-maila egokia izateko eskubidea.

Etxegabetasuna lau arrazoi-multzo handiren arteko elkarrekintza dinamikoaren ondorioz sortutako prozesua da: egiturazkoak, instituzionalak, harremanetakoak eta pertsonalak, normalean aldi berean eta konbinatuta agertzen direnak.

**1.797** etxegaberi eman zaie bide-laguntza (%9 ♀).



**80** pertsonak banakako arreta integrala jaso dute **Giltza y Etxepel** proiektuetan (%25 ♀).

**536** pertsona artatu dira **Hontza** gaueko zentroan (%10 ♀).

**1.066** pertsonak arreta jaso dute **Gertu** proiektuan (eguneko arretarako zerbitzua) Haran Zentroan (%6 ♀).

**214** pertsona **Barakaldoko jantoki sozialean** (%12 ♀).

**1717** parte-hartzaile (%70 ♀) sentsibilizaziorako **65** ekintzatn.

Etxerik gabeko pertsonen arloak etxegabeen bizitza duin bihurtzeko eta bazterketa-errealitate horren arrazoiaren gainean jarduteko lan egiten du.



## Esku-hartze ildoak:

- **Oinarrizko premiei arreta emateko zerbitzuak.** Artatzen duten pertsonaren bazterketa-egoeraren ondorioak arindu nahi dituzte, eta haren eskubideak baliatzeko eta gizarteratu ahal izateko bideak erraztuko dizkioten sistemekin konektatu.
- **Gizarteratzen laguntzeko zerbitzuak.** Laguntza pertsonalizatua eskaintzen dute etxerik gabeko pertsonak gizarteratzeko prozesuak garatu ahal izan ditzaten.



# ETXEBIZITZA

Etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea (etxebizitza eskuratzea eta sostengatzea y mantenimiento).

Etxebizitza duin bat eskuratzeko eskubidea eskurazina da familia askorentzat, beren etxeko segurtasunik eza eta desegokitasuna jasaten dutelako, eta eragin nabarmena dutelako baliabide ekonomikoetan, osasun-egoeran eta gazteenen bizi-proiektuetan.

**808** pertsonak jaso dute bide-laguntza etxebizitzaren esparruan (%34 ♀).



**337** pertsonak jaso dute **laguntza ekonomikoa** etxebizitzaren esparruan (%45 ♀).

**215** pertsona, Caritas Bizkaiaren bide-laguntza jasotzen dute,

**61** etxebizitzatan **Eguzkilore Fundazioaren** bitartez (%39 ♀).



Etxebizitza giza eskubide gisa hartuta, arlo honek esku hartzeko, sentsibilizatzeko eta eragiteko jarraibideetan laguntzen die Caritas Bizkaiako agenteei.

## Sareetan parte hartzea:

- **EAPN Euskadi.** Etxebizitza eta etxerik gabekoen taldea.
- **Etxebizitzako Politika Publikoen Talde Konfederala.**
- **REAS Euskadi.** Etxebizitza taldea.
- **Eusko Jaurlaritzaren Migrazio Foroa.** Etxebizitza eta gizarte-zerbitzuen batzordea.

Caritas Bizkaiak bat egin du Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak sustatutako Etxebizitzaren aldeko 2023-2036ko Itun Sozialarekin. Honako hauxe dugu helburu: pertsona guztientzat eta, batez ere, zaugarrientzat etxebizitza duinerako eskubidea bultzatzea, ituneko eragile sinatzaile guztien laguntzaz.



# SUSTAPEN SOZIAL ETA PERTSONALA

Gizarteratzeko eskubidea. Komunitate bateko kide izatea.

Inklusio soziala eta pertsonala hobetzearen aldeko apustua egiten du, talde-proiektuen bidez. Proiektu horien bidez, parte-hartzaileek beren prozesuan aurrera egiten dute, parte hartzen duten sistema soziokomunitarioan integratu ahal izateko.

**1.684** pertsonak jaso dute bide-laguntza (%76 ♀).



**547** pertsonak egin dituzte hizkuntza ezagutzeko ikastaroak (gaztelania eta euskara) (%63 ♀).

**724** pertsonak harremanen arloko jardueretan pertsonen arteko loturak ezartzeko eta norberaren hobekuntzarako eta gizarte-bizikidetzarako oinarritzko trebetasunak eskuratzeko (%89 ♀).

**494** pertsona gizarte eta lan arloko dinamizazioarako (eskulanak, zainketak, alfabetatze digitala...) enplegarritasunerantz suspertzeako asmoz (%79 ♀).

**93** pertsona (%65 ♀) y haien familiak ACCEDE proiektu eredugarri konfederalaren laguntza jaso dute, ekintza integral, antolatu eta koordinaturako ibilbideak garatzeko, sustapena zein enplegurako orientazioa bultzatzeko eta eskubideak eskuratzen eta erabiltzen laguntzeko.

Sustapen Sozial eta Pertsonaleko arloak aukerak eskaintzen ditu ikasteko gaitasunak, harreman-mailak eta parte-hartze soziala, autonomia eta gizarte- eta lan-aktibazioa hobetzeko.



## Esku-hartze ildoak:

- **Harremanak.** Gaitasun teknikoren bati buruzko ezagutzak lantzen dituzten tailerrak garatzen ditu, parte-hartzaileentzako harreman-espazio bat erraztera bideratuta daudenak. Ildo horretan bertan txertatzen dira hurbilketa sozial eta bateratua sustatzen duten partaidetzazko esperientziak.
- **Gizarte eta lan arloa.** Gizarteratzeko eta laneratzeko planteamenduetara bultzatzen duten espezialitate profesionalekin hasierako harremana ezartzea ahalbidetzen duten prestakuntza-ekintzak garatzen ditu. Lerro honetan sartu dira alfabetatze digitaleko ikaskuntza-proposamenak.
- **Hizkuntza.** Komunikazio- eta ikaskuntza-beharrak hizkuntzaren aldetik konpontzen dituzten tailerrak garatzen ditu. Hizkuntzaren eduki linguistikoak eta soziokulturalak aurreikusten dira, metodologia praktikoekin.

# FAMILIA-HARREMANAK ETA HAURTZAROA

Haurren babeserako eta garapenerako aukerak izateko eskubidea, modu osasungarrian eta askatasun- eta duintasun-baldintzetan.

Pobrezia-egoeran hazteak, prestakuntza-prozesuak behar bezala jarraitzeko zailtasunak izateak, familia-estresaren testuinguruetan bititzeak eta abarrek aukera gehiago ematen dituzte adingabeek eta gazteek etorkizunean pobrezia, kalteberatasuna eta gizarte-bazterketa jasateko. Pobrezia heredatu egiten da.

**1.095** personas acompañadas (%63 ♀).



**523** haurrek jaso dute heziketa eta gizarte arloko laguntza (%52 ♀).

**107** pertsonak etengabe parte hartzen dute 9 hilabete dirauen familia-hezkuntzako programan, gurasotasun onaren garapenarekin lotutako jakintzak, trebetasunak eta jokabideak eskuratzeko edota sendotzeko. (%97 ♀).

**131** adingabek parte hartzen dute hiri-udalekuetan (%53 ♀).

**111** adingabek jaso dute arreta zaintza zerbitzuetan (Txikilekuak) beren gurasoek jardueretan parte hartu ahal izateko (%61 ♀).

**250** familiak seme-alaben hezkuntzarekin lotutako gaien buruzko taldeko **81** prestakuntza-saioetako batzuetan parte hartzen dute (%84 ♀).

**Familia Harremanen Arloak babesa eta laguntza eskaintzen die haurrak zaindu behar dituzten eta gizarte-zaingarritasuneko egoeran dauden familiei gaitasun pertsonalak, sozialak, hezkuntzakoak eta afektiboak garatu ahal izan ditzaten.**



## Esku-hartze ildoak:

- **Haurrak.** Haurren eta haien familien gaitasun pertsonalak, hezkuntzakoak, sozialak eta familiarrak sustatu nahi ditu, bazterketaren prebentzioaren ikuspegitik.
- **Gurasoak.** Gurasoentzako kontraste- eta prestakuntza-guneak, guraso-trebetasunak, familia barruko komunikazioa eta familia-kudeaketa orokorra hobetzera bideratuak.
- **Familia-laguntzarako zerbitzuak.** Familia-egoera orokorra hobetzen laguntzen dute.

**Haur eta nerabeen prebentzio eta babes plana**



# EDADETUAK ETA ZAHARTZEA

Askatasuna izateko eta norbere bizitzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea

Edadetuen errealitateaz sentsibilizatzen du, kolektibo horrekiko begirada soziala aldatzeko eta haien parte-hartzea mugatzen duten estereotipoak ezabatzeko. Harreman pertsonalak aberasten ditu, eta, ildo horretan, autonomia, ingurunearekiko lotura, eskubideak baliatzea eta baliabide komunitarioetarako sarbidea sustatzen ahalegintzen da.



**443** pertsonak jaso dute bide-laguntza (%77 ♀).

**83** edadetuk aurrez aurreko eta/edo telefono bide-laguntza (Uste On) jasotzen dute banaka eta astero (% 75 ♀).

**35** edadetuk astero dinamizazio jardueretan hartzen dute parte (%94 ♀).

**18** egoitzatan ematen da bide-laguntza.

**11** pertsonak euren etxebizitzako baldintzak hobetu dituzte **Barriztu** proiektuaren laguntzaz (%64 ♀).

**135** pertsonak **Bizi-beten** parte hartzen dute, astean behin topaleku bat eskaintzen duena (%96 ♀).

**83** pertsona **Esku Onetan** proiektuko onuradunak dira, eta, bertan, atsedernaldia zein laguntza eskaintzen zaizkie etxean bertan mendekotasuna duen senidea zaintzen dutenei (%75 ♀).

**49** pertsona **Egunon Etxea** proiektuan, zeinaren bidez arreta integrala eskaintzen baitzaie egoera bereziki ahulean dauden pertsona edadetuei urteko egun guztietan (80% ♀).

Edadetuen eta Zahartze arloak pertsona edadetuen bizi-kalitatea eta -baldintzak hobetzen lagundu nahi du, eta, bereziki, pertsona kalteberenenak.



## Esku-hartze ildoak:

- **Laguntza eta dinamizazioa.** Pertsona edadetuen harreman-dimentsioa sendotzen saiatzen da, ingurunearekiko hartu-emanetan jarraitzen laguntzen du eta haien bakardade-sentimendua prebenitzen du, boluntarioekin elkartzeari esker.
- **Zaintzaileei laguntzea.** Atsedenerako denbora eskaintzen du, kontratatutako pertsonen eta boluntarioen lan osagarriaren bidez.
- **Etxebizitza egokitzeko laguntza.** Obra txikiak egiten ditu baliabide mugatuak dituzten edadetuen etxebizitzetako baldintzak hobetzeko, guztia ere haien ohiko etxebizitzan jarrai dezaten.
- **Kalteberatasun-egoeran dauden edadetuentzako arreta integrala.** Bizi-ibilbide konplexua duten eta baliabide konbentzionaletan beren premiei erantzunik aurkitzen ez dieten edadetuei arreta ematen die.



# NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA MIGRAZIOAK

Migratzeko, nazioarteko babesa jasotzeko, nortasun kulturala mantentzeko eskubidea. Aniztasuna errespetatzea

Gizartearen eta komunitatearen sentsibilizazioa, parte-hartzea eta mobilizazioa sustatzen du, herrialde pobretuen eta aberastuen arteko harreman justuagoak bultzatzeko. Beste harreman modu bat agerian uzten duten ekintzak eta proiektuak bultzatzen ditu, anai-arreben arteko lankidetzan.

## Anai-arreben arteko lankidetzan **10** proiekturen garapena

**3.059** onuradun zuzen egindako proiektuetan (**%50 ♀**).

### Proiektuak jatorrizko herrialdeetan

**Filipinak:** Mountain Provinceko eta Ekialdeko Mindoroko garapen ekonomikorako lidergo indigena.

**Haiti-Hinche:** Boc Baniqueko eta Saltadereko erkidegoek elikadurarako dituzten eskubideak gauzatzerko proiektua.

**Haiti-Les Cayes:** Elikadura-segurtasunerako proiektua

**Kongoko Errepublika Demokratikoa:** Caritas Kinshasa emakumeen prestakuntzarako zentroari laguntzea

**Ruanda:** Caritas Kigali haurren prestakuntza-zentroari laguntza ematea.

**Ecuador-Napo:** euren mundu-ikuskeraren eta biodibertsitatearen bidez, kichwa emakume eta neska gazteen jabetasun politiko, ekonomiko eta soziala lortzeko proiektua, tokiko garapena jasagarria izan dadin

**Perú-Huaraz:** Covid-aren garaian elikadura osasungarrirako eskubidea defendatzeko proiektua

**Guatemala:** gizarte-ehuna, ekoizpen iraunkorra eta habitat osasungarria sustatzen dituen proiektua.

**El Salvador:** emakume nekazarien antolakuntza-, ekonomia- eta ekoizpen-gaitasunak indartzea.

### Proiektuak migrazio-mugimendua duten herrialdeetan

**Libano:** Siriako eta Irakeko errefuxiatuei laguntzea; hezkuntza-arreta adingabeei eta beren familiei. Fratelli proiektua.

## Migratzaileei eta errefuxiatuei laguntzeko **3** proiektu

**185** pertsonak jaso dute bide-laguntza (**%51 ♀**).

### Proyectos desarrollados como país de acogida

**175 pertsonak (%50 ♀)** nazioarteko babeseko eskatzaileek eta onuradunek, arreta jaso dute **Gohiabe** proiektuan.



## **70 pertsonak (%37 ♀)**

arreta jaso dute **Aholku Sarearen** bidez. Atzerritartasunaren arloko zerbitzu juridikorako sarea da. Eusko Jaurilaritzak sustatzen du, eta, bertan, Caritas Bizkaiak parte hartzen du abokatuen elkargoekin, Biltzenekin eta beste 6 gizarte-erakunderekin batera.

**Babesletza komunitarioa proiektua – Auzolana II.** 2023an, Libanoko errefuxiatu-eremu batetik etorritako familia siriari bide-laguntza ematen jarraitzen da. Familia hori 8 boluntarioren (**%75 ♀**) bide-laguntza jasotzen dute gure komunitatean integratzeko prozesuan, eta beste 5en laguntza puntuala du.



**Nazioarteko Lankidetzaren eta Migrazioen programa** karitate unibertsalaren adierazpen bezala sortu zen. Herri guztietara zabalik dagoen eta justiziaren alde eta pobrezia eta desberdintasuna sortzen dituzten egituren aldaketaren alde borrokatzen da.



# GAZTERIA ETA EMANTZIPAZIOA

Garapen-baliabideak eskuratzeko eta autonomia lortzen joateko erantzukizunak hartzeko eskubidea.

Gazteen helduarora emantzipatzeko prozesuei bide-laguntza ematea etorkizuneko gizarte-bazterkeria eta pobrezia prebenitzen laguntzen du. Haien errealitatea eta aurre egiten dieten erronkak ikusaraztea funtsezkoa da prozesuan.

**160** gaztek jaso dute bide-laguntza (%9 ♀).



**48** gazte, Gandarias Etxean, Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) Gazte Estrategiari lotutako zentroan bazterkeria-arriskuan dauden gazteak emantzipatzeko bide-laguntzari bideratuta (%25 ♀).

**46** gazte, laguntza-sarerik gabe, Auzobizirik Otxarkoagan ikastetxearekin lankidetzan, Komunitate Hartzaielen Elizbarrutiko esparruan eta Eusko Jaurlaritzaren Trapezistak programan (%2 ♀).

Namasté gazteen topaketa eta partaidetza taldeko **22**, non adierazpen artistikoko jarduera komunitarioak egiten dituzten (%18 ♀).

**67** gazte prestakuntza- eta lan-ibilbideetan, BFAko Enplegu Sailaren Gazteon programaren barruan eta Somorrostro irakas-gunearekin lankidetzan (%1 ♀).

**111** gaztek, 18 eta 25 urte bitartekoak, Caritas Bizkaiako Gazte Enpleguaren Zerbitzuaren bidez enplegu-ibilbideetan jasotzen dute bide-laguntza (%34 ♀).

**Gazteria eta Emantzipazioa arloak erantzun integrala eman nahi die bizi-egoera konplexuak eta familia- eta gizarte-sare txikia edo batere ez duten gazteei.**



## Esku-hartze ildoak:

- **Bazterkeria-egoeran dauden gazteei laguntzea.** Kalteberatasun eta zailtasun sozialeko egoeran dauden gazteen bazterkeria prebenitu nahi du.
- **Kalean dauden gazteei laguntzea.** Elizbarrutiko beste erakunde batzuekin batera, laguntza komunitarioko sare bat jartzen du kalean dauden gazte atzerritarren eskura.
- **Parte-hartzea.** Gazteen sare soziala zabaltzea sustatzen du, loturak sortuz eta pertsona heldu gisa laguntzeko eta hazteko talde baten parte sentiaraziz.
- **Gazteak gizarteratzen eta laneratzen laguntzea.** Kalteberatasun-egoeran dauden gazteentzat gizarteratze- eta laneratze-ibilbideak sortzea du helburu.

# ZERBITZU JURIDIKOA

Caritas Bizkaiako zerbitzu juridikoak baztertuta edo bazterkeria arriskuan daudenei ematen die aholkularitza haien eskubideen aitortzaren eta erabateko erabileraren arloan.

**924** pertsona artatu dira (%50 ♀).



**619** pertsonak atzerriartasunaren arloko aholkularitza jaso dute (%48 ♀).

**19** pertsonak enpleguaren arloko aholkularitza jaso dute (%53 ♀).

**164** pertsonak arlo zibil eta administratiboko aholkularitza jaso dute (54% ♀).

**23** pertsonak zigor eta espetxe arloko aholkularitza jaso dute (26% ♀).



Aholkularitza juridiko-administratiboa ematen dugu, prebentzio-izaerarekin etorkizuneko gatazkei aurre egiteko, pertsonaren egoera hobetzera bideratuta, bere eskubide eta betebeharreri eta horiek gauzatzeko moduari buruzko informazio egokiaren bidez.

# PSIKOLOGIA ZERBITZUA

Osasun mentala pertsona guztiek osasun integrala izateko duten eskubidearen parte den giza eskubidea da. Ez dago osasunerako eskubiderik osasun mentala ez bada kontuan hartzen.

**251** pertsona artatu dira (%55 ♀).



Bide-laguntza jasotzen duten(Giltza-Etxepel)

**48** etxegabek arreta psikosoziala jasotzen dute (%27 ♀).

Bide-laguntza jasotzen duten(Gandarias Etxea)

**29** gaztek bazterkeria arriskuan daudenak, arreta psikosoziala jasotzen dute (%31 ♀).

**40** adingabek haur eta gazteentzako arreta klinikoa jasotzen dute (%43 ♀).

**81** pertsonak helduentzako arreta klinikoa jasotzen dute (%75 ♀).



Gizareratze-prozesua hobetzeko behar izan dezaketen arreta psikoterapeutiko klinikoa edo psikosoziala ematen diegu Caritas Bizkaiatik bideratu eta bide-laguntza eman zaien pertsona edo familiei. Boluntarioei eta kontratatutako langileei laguntza tekniko eta/edo emozionala ere ematen diegu.

# Lurralde-garapena



Tokiko kristau-komunitateak animatu eta lagundu nahi ditugu, dinamizaziotik, gizarte- eta karitate-konpromisoa har dezaten, erantzukizun partekatuko guneetan parte har dezaten eta zaurgarritasun-egoeran daudenei lagundu diezaieten.

Karitate- eta gizarte-ekintzarako animazioa, pertenezia- eta elkartasun-komunitateak eraikitzen bideratuta dago.

2023an honako hauek garatu ziren:

**194 Lurralde-proiektu** honako arlo hauei lotuak: Harrera integrala, Familia eta familia-harremanak, Sustapen soziala eta Pertsonala, Edadetuak eta zahartzea eta Etxerik gabeko pertsonen arloko Etxepel eta Barakaldoko jantokia. **9.041 pertsonari eman zitzaizen bide-laguntza (%57 ♀) 1.447 boluntarioen laguntzarekin (%78 ♀).**

Elizbarrutiko **35 proiektu espezifiko**, Etxerik gabeko pertsonen, Etxebizitzaren, Enplegu eta ekonomia solidarioaren, Gazteriaren arloei eta Zerbitzu psikologikoari eta Nazioarteko Lankidetzari eta Migrazioei lotuak, **4.317 pertsonari bide-laguntza eman zietenak (%42 ♀) 101 boluntarioen laguntzarekin (%58 ♀).**

I. Bikarritza	II. Bikarritza	III. eta VIII Bikaritzak	IV. Bikarritza	V. Bikarritza	VI. Bikarritza
<b>41</b> proiektu	<b>21</b> proiektu	<b>69</b> proiektu	<b>27</b> proiektu	<b>8</b> proiektu	<b>28</b> proiektu
<b>2.041</b> pertsonak jaso dute bide-laguntza (%52 ♀)	<b>382</b> pertsonak jaso dute bide-laguntza (%54 ♀)	<b>3.952</b> pertsonak jaso dute bide-laguntza (%59 ♀)	<b>1.082</b> pertsonak jaso dute bide-laguntza (%54 ♀)	<b>316</b> pertsonak jaso dute bide-laguntza (%51 ♀)	<b>1.436</b> pertsonak jaso dute bide-laguntza (%61 ♀)
<b>298</b> boluntario (%79 ♀)	<b>106</b> boluntario (%80 ♀)	<b>627</b> boluntario (%76 ♀)	<b>283</b> boluntario (%85 ♀)	<b>39</b> boluntario (%92 ♀)	<b>270</b> boluntario (%79 ♀)

**593** haur (%49 ♀) eta **150** gazte (%38 ♀).


Artatutako pertsonen %36 23 urtetik beherakoak izan dira (%47 ♀).

**445** pertsona bakarreko etxeetako kideak dira (%69 ♀).

**1.174** 23 eta 64 urte bitartekoak dira (%62 ♀).

65 urteko **123** pertsona (% 89 ♀).

**911** heldu ziren lehen aldiz Caritasera 2023an (%47 ♀).



**1.105** pertsona seme-alabak dituzten familietako kideak dira (%60 ♀).

**976** bertakoak eta egoera erregularrean dauden etorkinak dira (%61 ♀).

## I. BIKARITZA



**2.041** pertsonak jaso dute bide-laguntza

**%52** ♀

**298** boluntario (%79 ♀) **41** proiektutan.



**1.479** pertsonari eman zaie bide-laguntza Harrera integralean (%51 ♀).



**201** pertsonari eman zaie bide-laguntza Sustapen Sozial eta Pertsonalaren arloan. (%88 ♀).



**63** pertsonari eman zaie laguntza Edadetuena eta Zahartzearen arloan (%89 ♀) eta kontaktu egonkorra **bi** egoitzarekin.



**170** pertsonari eman zaie bide-laguntza Familia-harremanen eta Haurtzaroren arloan (%61 ♀).



**214** pertsonari eman zaie bide-laguntza Etxerik gabeko pertsonen arloan Barakaldoko Jantokian (%12 ♀).



**560.504,95€** laguntza ekonomikoetarako.

Bikaritzan kokatutako elizbarrutiko proiektuak:



Gazteria:  
Gazte-On, Auzobizi




Edadetuak:  
Esku Onetan



Koopera  
dendak



Nazioarteko  
lankidetzeta eta  
migrazioak



## II. BIKARITZA



**382** pertsonak jaso dute bide-laguntza **%54 ♀**

**106** boluntario (%80 ♀) **21** proiektutan.



**283** pertsonari eman zaie bide-laguntza Harrera integralean (%47 ♀).



**71** pertsonari eman zaie bide-laguntza Sustapen Sozial eta Pertsonalaren arloan. (%83 ♀).



**4** pertsonari eman zaie laguntza Edadetuen eta Zahartzearen arloan (%75 ♀) eta bide-laguntza grupala sei egoitzetan.



**76** pertsonari eman zaie bide-laguntza Familia-harremanen eta Haurtzararen arloan (%58 ♀).



**125.495,32€** laguntza ekonomikoetarako.

Bikaritzan kokatutako elizbarrutiko proiektuak:

Enplegua:  
Lan aurreko Soloan tailerra

Nazioarteko lankidetzeta eta migrazioak

**1.012** haur (%49 ♀) eta **241** gazte (%48 ♀).  
Artatutako pertsonen %32 23 urtetik beherakoak izan dira (%49 ♀).

**944** pertsona bakarreko etxeetako kideak dira (%71 ♀).

**2.041** 23 eta 64 urte bitartekoak dira (%60 ♀)

65 urteko **298** pertsona (% 86 ♀).

**1.680** heldu ziren lehen aldiz Caritasera 2023an (%57 ♀).



**2.054** pertsona seme-alabak dituzten familietako kideak dira (%64 ♀).

**1.904** bertakoak eta egoera erregularrean dauden etorkinak dira (%65 ♀).

## III. eta VII. BIKARITZAK



**3.952** pertsonak jaso dute bide-laguntza

**%59** ♀

**627** boluntario (76% ♀) **69** proiektutan.



**2.525** pertsonari eman zaie bide-laguntza Harrera integralean (%53 ♀).



**982** pertsonari eman zaie bide-laguntza Sustapen Sozial eta Pertsonalaren arloan. (%72 ♀).



**152** pertsonari eman zaie laguntza Edadetuen eta Zahartzearen arloan (%89 ♀) eta kontaktu egonkorra **lau** egoitzarekin.




**622** pertsonari eman zaie bide-laguntza Familia-harremanen eta Haurtzaroren arloan (%63 ♀).




**1.000.751,64€** laguntza ekonomikoetarako


Bikaritzan kokatutako elizbarrutiko proiektuak:




Edadetuak




Etterik gabekoak




Gazteria




Enplegua



Koopera dendak



Nazioarteko lankidetzeta eta migrazioak



## IV. BIKARITZA



**1.082** pertsonak jaso dute bide-laguntza

**%54** ♀

**283** boluntario (%85 ♀) **27** proiektutan.



**825** pertsonari eman zaie bide-laguntza Harrera integralean (%52 ♀).



**127** pertsonari eman zaie bide-laguntza Sustapen Sozial eta Pertsonalaren arloan. (%78 ♀).



**5** pertsonari eman zaie laguntza Edadetuen eta Zahartzearen arloan (%60 ♀) eta kontaktu egonkorra egoitza **batekin**.



**140** pertsonari eman zaie bide-laguntza Familia-harremanen eta Haurtzaroren arloan (%56 ♀).



**33** pertsonari eman zaie bide-laguntza Etxerik gabeko pertsonen arloko Etxepel zentroan. (%30 ♀).



**238.784,77€** laguntza ekonomikoetarako

Bikaritzan kokatutako elizbarrutiko proiektuak:

Edadetuak: Esku Onetan

Kooperak dendak

Nazioarteko lankidetzak eta migrazioak




**92** haur (%47 ♀) eta **17** gazte (%59 ♀).  
 Artatutako pertsonen % 34 23 urtetik beherakoak izan dira (%49 ♀).

**71** pertsona bakarreko etxeetako kideak dira (%69 ♀).

**204** 23 eta 64 urte bitartekoak dira (%51 ♀).

65 urteko **3** pertsona (% 67 ♀)



**179** pertsona seme-alabak dituzten familietako kideak dira (%56 ♀).

**181** heldu ziren lehen aldiz Caritasera 2023an (%57 ♀).

**109** bertakoak eta egoera erregularrean dauden etorkinak dira (%47 ♀).

## V. BIKARITZA



**316** pertsonak jaso dute bide-laguntza

**%51** ♀

**39** boluntario (%92 ♀) **8** proiektutan.



**287** pertsonari eman zaie bide-laguntza Harrera integralean (%53 ♀).



**27** pertsonari eman zaie bide-laguntza Sustapen Sozial eta Pertsonalaren arloan. (%26 ♀).



**19** pertsonari eman zaie bide-laguntza Familia-harremanen eta Hartzaroaren arloan (%37 ♀).



**101.633,41€** laguntza ekonomikoetarako.

Bikaritzan kokatutako elizbarrutiko proiektuak:



Gazteria:  
Gazte-On



Nazioarteko lankidetzak eta migrazioak

**326** haur (%51 ♀) eta **97** gazte (%60 ♀).

Artatutako pertsonen %29 23 urtetik beherakoak izan dira (%53 ♀)

**334** pertsona bakarreko etxeetako kideak dira (%78 ♀).

**936** 23 eta 64 urte bitartekoak dira (%64 ♀).

65 urteko **76** pertsona (%74 ♀).

**777** heldu ziren lehen aldiz Caritasera 2023an (%57 ♀).



**654** pertsona seme-alabak dituzten familietako kideak dira (%65 ♀).

**530** bertakoak eta egoera erregularrean dauden etorkinak dira (%63 ♀).

## VI. BIKARITZA



**1.436** pertsonak jaso dute bide-laguntza

**%61** ♀

**270** boluntarioa (%79 ♀) **28** proiektutan.



**1.257** pertsonari eman zaie bide-laguntza Harrera integralean (%60 ♀).



**290** pertsonari eman zaie bide-laguntza Sustapen Sozial eta Pertsonalaren arloan. (%81 ♀).



**52** pertsonari eman zaie laguntza Edadetuen eta Zahartzearen arloan (%75 ♀) eta kontaktu egonkorra **lau** egoitzekin.



**110** pertsonari eman zaie bide-laguntza Familia-harremanen eta Haurtzaroaren arloan (%76 ♀).



**296.333,10€** laguntza ekonomikoetan.

Bikaritzan kokatutako elizbarrutiko proiektuak:

 Edadetuak: Esku Onetan	 Gazteria: Auzobizi	 Enplegua: Alkarlanda lan aurreko tailerra	 Koopera dendak
--	--	--	--



Nazioarteko  
lankidetzeta eta  
migrazioak

# Sentsibilizazioa eta eragina



Aurrez aurreko **230** sentsibilizazio-ekintza baino gehiago (tailerrak, hitzaldiak, kaleko ekitaldiak, topaketak, jardunaldiak...), **5.500** pertsonarengan baino gehiagorengan eragina dutenak (%69 ♀).

**15.880** jarraitzaile sare sozialetan (%60 ♀).

Kanpainak



## Gizarte politiketarako ekarpenak / Eragina

- **Dekretua, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duena** (Eusko Jaurlaritz, Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza).
- **Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera** (Estatuko Gobernu. Gizarteratze eta Migrazio Ministerioa - Eusko Jaurlaritz, Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza),
- **Gizarteratzeko V. Euskal Plana** (Eusko Jaurlaritz, Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza),
- **ESTEKA SAREA estrategia, Bizkaian bakardadearen prebentzioan fokua duen ekintza komunitarioa eraikitzeari buruzkoa** (Bizkaiko Foru Aldundia Enplegua, gizarte-kohesioa eta berdintasuna)
- **Bizitegi-bazterketa larriaren aurkako II. Euskal Estrategia** (Eusko Jaurlaritz. Gizarte Politiketako Sailburuordetza).
- **Atzeritarrei buruzko Erregelamendua** (Estatuko Gobernu. Gizarteratze eta Migrazio Ministerioa)
- **Udaleku eta kanpamentuetako egonaldiei buruzko dekretua.** (Udalekuak 2023-2024)
- **Egoera irregularrean dauden migratzaileak online inskribatzeko prozesua** (Bizkaiko Foru Aldundia, Euskara, Kultura eta Kirol Saila)
- **Haurren eta Nerabeen Euskal Legea** (Eusko Jaurlaritz, Gizarte Politiketako Sailburuordetza).
- **Etxebizitzarako eskubidearen aldeko legea** (Estatuko Gobernu. Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministerioa)
- **Etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko dekretua** (Eusko Jaurlaritz. Etxebizitza Sailburuordetza)
- **Enpleguaren aldeko Itun Soziala** (Eusko Jaurlaritz. Lan eta Enplegu Saila)



**127** sareko lan-eremu

- **20** espacios elizbarrutiaren eremuan
- **28** gune Hirugarren Sektorako erakundeekin
- **18** gune administrazio publikoekin (Eusko Jaurlaritz, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala) eta **40** gune udalekin eta beste sare lokal batzuekin.
- **21** gune Caritas Konfederazioaren esparruan.

Parte hartzen dugun sareak




# DATU EKONOMIKOAK

## NORA BIDERATZEN DITUGU FUNTSAK?

HARRERA INTEGRALA	4.148.582€	%27
ENPLEGUA ETA EKONOMIA SOLDARIOA	1.901.207€	%13
ETXERIK GABEKO PERTSONAK	2.749.497€	%18
GAZTERIA ETA EMANTZIPAZIOA	1.057.689€	%7
FAMILIA HARREMANAK ETA HAURTZAROA	730.375€	%5
SUSTAPEN SOZIAL ETA PERTSONALA	751.664€	%5
EDADETUAK ETA ZAHARTZEA	915.238€	%6
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA MIGRAZIOAK	681.456€	%4
KOMUNITATE-ANIMAZIOA ETA BOLUNTARIOTZA	687.666€	%5
SENTSIBILIZAZIOA	314.997€	%2
BEHATOKIA	223.655€	%1
ZERBITZU OROKORRAK	1.053.538€	%7


**GUZTIRA: 15.215.567€**



## NONDIK DATOZ GURE DIRU-SARRERAK?

Diru-bilketak	463.257€	%3
Bazkideak eta emaileak	5.372.400€	%36
Herentziak eta legatuak	1.031.398€	%7
Entitate pribatuak	1.488.522€	%10
Administrazio publikoak	5.300.240€	%36
Bestelako berezko sarrerak	1.167.011€	%8

**GUZTIRA: 14.822.827€**



## LAGUNTZA EKONOMIKOAK, GUZTIRA: 3.568.801,36€

<b>LAGUNTZA ZUZENAK</b>	Elikadura eta, oro har, iraupenerako laguntzak	2.918.008,42 €
	Etxebizitzarako laguntzak	176.899,92 €
	Formakuntzarako eta enplegurako laguntzak	125.722,05 €

<b>ZEHARKAKO LAGUNTZAK</b>	Kontrataziorako laguntzak	146.278,57 €
	Etxebizitzarako laguntzak	201.892,40 €
	<b>137.877,92€ txarteletan, KOOPERA denden sarearekin lankidetzan</b>	

AUREN, erakundearen auditore independentea, txosten hau argitaratzen den unean Bilboko Elizbarrutiko Caritasen 2023ko ekitaldiko urteko kontuen auditoretza-txostena emateko prozesuan dago.

# ALIA NTZAK

## Ondorengo erakundeen lankidetzak eskertzen dugu



Eskerrik asko herri hauetako udalei, emandako laguntzagatik: Amorebieta - Etxano, Barakaldo, Bilbao, Durango, Erandio, Gernika, Getxo, Gortzi, Iurreta, Leioa, Mungia, Muskiz, Plentzia, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Sopela y Trapaga.

## Lotutako erakundeak



## Finantza etikoak



## Aitorpenak / akreditazioak



# Zabaldu zure sen oparoa



2023ko Memoriaren bidez, gure errealitatea ezagutu duzu, Caritas Bizkaiako Harrera Komunitatearena, hain zuzen ere. Orain, animatu egiten zaitugu zure "sen oparoa", beste pertsona batzuei laguntzera bultzatzen gaituen barne txinparta, partekatzerara.

Zure bihotzaren alderdi sakonetik, bakarka, familiarekin, enpresarekin... zure "sen oparoa" lagungarri egin, Caritas Bizkaiak bultzatzen eta suspertzen duen gizarte-eraldaketaren historian lagun dezan.



Zure ekarpenak  
pertsonen bizitza  
hobetzen laguntzen digu.  
Zurekin gaude.



[www.caritasbi.org](http://www.caritasbi.org)

☎ 94 402 00 77

📱 bizum 33514

# MEMORIA 2023 TXOSTENA

Cada gesto cuenta



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

[www.caritasbi.org](http://www.caritasbi.org)



**Caritas**  
Bizkaia



Impreso en  
papel reciclado



**Un total de casi 15.000 rostros distintos, de personas procedentes de realidades diferentes, pero con corazones que han latido unidos en una Comunidad acogedora, empeñados en mejorar las oportunidades y la dignidad de muchas personas, han dado como resultado esta Memoria 2023. Resume proyectos basados en historias reales, de solidaridad, de superación, de acompañamiento y entrega.**

**Sus protagonistas han sido las personas voluntarias, acompañadas, profesionales y colaboradoras de Caritas Bizkaia. Cada cifra protege a muchos corazones deseosos de seguir latiendo y contagiando ilusión en favor de la justicia y la transformación social.**

**Descubre en estas páginas la labor de la Comunidad Acogedora de Caritas Bizkaia.**

ELENA UNZUETA. Directora Caritas Bizkaia

## MISIÓN

Caritas Bizkaia es expresión y parte de la Comunidad Cristiana de la Iglesia de Bizkaia. Anima y acompaña el desarrollo de su dimensión socio-caritativa. Fundamentada en el voluntariado, promueve la participación, el compromiso social y el trabajo en red. Acompaña a las personas en sus procesos de inclusión social alimentando su esperanza, generando respuestas e iniciativas innovadoras ante las necesidades descubiertas, trabajando por los derechos para que desarrollen una vida digna. Visibiliza, sensibiliza y denuncia las causas que generan injusticia, proponiendo alternativas para la transformación social.

## VISIÓN

Caritas Bizkaia se ve en los próximos años:

- *Presente, participando activamente y fomentando la participación y el compromiso en favor de la justicia y la transformación social*
- *Visible, conocida por lo que es, por lo que hace y por lo que propone.*
- *Cuidadora y que impulsa el cuidado como elemento clave del modelo de sociedad.*
- *Con saber hacer de calidad, actualizada en sus iniciativas de acción y abierta a la diversidad en favor de las personas en situación de vulnerabilidad.*

Vídeo institucional



## VALORES

- Amor, Participación, Gratitud, Cercanía, Esperanza, Coherencia y Espíritu de mejora



# Todo está conectado

